

HIZKUNTZ EREDUEI BURUZKO EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN AKORDIOA

Sarrera

Hizkuntzak kulturaren euskarria eta haren osagarririk esanguratsuen dira. Halaber, pertsonen artean komunikatzeko eta ikasteko tresna dira. Hizkuntzak aberastasun kolektiboa dira, babestu eta landu behar direnak, interes partikularrak eta taldekoiak alde batera utzita.

Gure hizkuntzak euskara, gaztelania eta frantsesa dira —baita, Amerikako diasporako euskaldun askorentzat, ingelesa ere—. Euskararen kasuan, euskaldunok dugu ondare unibertsal hori hizkuntza moderno eta erabilgarri bihurtzeko ardura eta hurrengo belaunaldiei transmititu behar diegu, bizirik jarrai dezan.

Bestalde, Euskadiko Eskola Kontseiluak irakaskuntzaren euskalduntzea landu du era sistematikoan bere txostenetan eta gaiari buruzko proposamenak egin ditu. Honetan, ekarpen espezifiko bat egin nahi dio Eusko Legebiltzarraren akordioari, irakaskuntzaren esparruan erkidegoko bi hizkuntza ofizialak maila guztietan menperatzea bermatuko duen eredu berri bat berehala aztertu eta lehenbailehen praktikan jartzeko eskaera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egiten zionari, irakaskuntzan indarrean dagoen ereduaren sistemak euskara behar bezala ezagutzea bermatzen ez duelakoan. Akordioan bertan aitortzen denez, gaztelaniaren kasuan bai aitortzen da ahozkoa ulertzeko eta idazteko egiazko gaitasuna, harremanetarako eta normalean erabiltzeko hizkuntza gisa erabili ahal izateko moduan.

Ondorioak aurkezteko epea hurbil dagoenez, Kontseiluak ekarpen hau egiten du. Horretarako, 2006ko azaroan jardunaldi batzuk antolatu ditu eta irakaskuntza euskalduntzeko prozesuan adituek, ikastetxeetako zuzendaritzek eta alderdi politikoek, Kontseiluko partaideez gain, hartu dute haietan parte. Jasotako informazioaren azterketaren eta, geroago, zenbait batzordetan eta erakundearen plenoan egin den hausnarketaren ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluak onartzen du Legebiltzarraren akordioan adierazitako helburua ardatz duen proposamen hau.

Egoeraren diagnostikoa

Hizkuntz ereduaren sisteman akatsak ikusten diren arren, Kontseilu honek era positiboan baloratzen ditu eskuratu diren lorpenak. Haien garapen eta

aplikazioan tentsioak falta izan ez diren arren, gaurko ereduaren sistemaren oinarrian zegoen adostasun sozial eta politiko zabalak zerikusi handia izan du euskal gizartearen euskalduntzean izan diren aurrerapenekin. Gure biztanle elebidunak % 10 gehiago dira azken 20 urteotan eta, gaur egun, 16tik 24 urtera bitarteko bi gaztetatik bat elebiduna da. Aurrerapen hau, neurri handi batean, hezkuntza-sistemari esker gertatu da.

Hezkuntza-sistemaren barruan, ehuneko handiagoan edo txikiagoan euskara irakasteko tresna gisa erabiltzen duten ereduak (B eta D ereduak) hedatu egin dira, familien eskaerari kasu eginez. Bestalde, irakasleek euskalduntzeko ahalegin handia egin dute eta, une honetan, % 70ek badu euskaraz irakasteko gaitasuna. Proporzio hau handiagoa da sare publikoan, hasierako etapetan eta irakasle gazteenen artean. Zalantzarik gabe, aurrerapen handiak izan dira eredu euskaldunen hedapenari begira.

Euskararen hizkuntz normalkuntzaren esparruan aurrerapen hauek izan diren arren, kritikak egin zaizkio ereduaren gaurko sistemari, bi aldetatik batez ere. Lehena, *ez dituela nahi diren eta Legeak aurreikusten dituen hizkuntz helburuak lortzen* eta bigarrena, *kohesio sozial eta kulturalaren falta*; izan ere, hizkuntz komunitate bereiziei eusten zaie baina gizarte elebidun kohesionatu batean bizitzea dugu helburu.

Hizkuntz helburuei dagokienez, duela gutxi neurtu dira euskarazko *ikaskuntzaren emaitzak*, Europako Kontseiluko hizkuntzetarako erreferentzia-esparru komunak ezartzen dituen mailetakoko bati begira, ingeleseko *First-en* baliokidea den B2 mailari begira zehatzago. Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) DBHko 4.eko ikasleei egin zien proba eta heren batek bakarrik gainditu zuen idatzizkoa, pixka bat gehiagok ahozkoa. Emaitza global honetatik, D ereduaren matrikulatutako ikasleen bi herenek eta B ereduaren ikasleen heren batek apur bat baino gutxiagok gainditzen zuten proba; proba ez zitzaien A ereduaren ikasleei egin, alde aurreko test baten ondoren ezarritako mailara iristen ez zirela uste izan zen eta. Bestalde, laster argitaratuko dira Lehen Hezkuntzako 6.eko ikasleei pasa zaien B1 probaren emaitzak (B2koa baino maila baxuagokoa).

Duela aste gutxi ISEI-IVEIk argitara eman berri ditu Lehen Hezkuntzako 6.eko ikasleei zuzendutako curriculum-arlo desberdinak biltzen dituen ebaluazio-proba baten emaitzak. Euskara arloaren emaitzei dagokienez (ahozkoa sartu gabe), aurreko emaitzak baieztatu eta konkretatzen dira:

- B ereduaren errendimenduak askoz gehiago hurbiltzen dira D ereduarenetara A ereduarenetara baino, bi hezkuntza-sareetan; A ereduak, oro har, oso baxuak dira.
- B ereduaren barruan desberdintasun handiak daude eta ikasleen multzo handi batek euskaraz ikasten jarraitzeko gomendatzen dena baino maila txikiagoa du.

Halaber, ezaugarri hauek dituen ikasleen multzo esanguratsu bat dugu D ereduaren ere.

- Aurreko ondoriora heltzen da hiru ereduaren emaitzak batera ikusten ditugunean: antzerakoak dira A ereduko emaitzarik onenak (eredu honetako ikasleen % 30) eta B eta D ereduaren errendimendurik txarrenak (eredu bakoitzeko % 40 eta %20, hurrenez hurren).

Arestian esandakoak ez gaitu irakurketa partzialetara eramanez, hizkuntza ereduak ez baitira euskalduntzearen arloan oraindik urria den aurrerapenaren eragile bakarrak. Pertsona eleanitzez osatutako jendarte euskalduna eraikitzea prozesu konplexua da, faktore askorekin lotuta. Hezkuntza elementu horietako bat besterik ez da. ISEI-IVEIren B2 txostenak berak ondorengo aldagai hauen garrantzi handia aipatzen du: etxean erabiltzen den hizkuntza, ingurune soziolinguistikoa, familien maila sozioekonomikoa eta kulturala eta, neurri txikiago batean den arren, sexua.

Arestian esandakoez gain, euskaldunen kopurua azken urteetan nabarmen hazi den arren, ez du ia eraginik izan euskararen benetako erabilpenean. Hizkuntza bat ikastea faktore pertsonal eta afektiboak, harreman eta motibazioak oso lotuta dago, hala nola praktikotasun-pertzepzioari ere. Elementu horiek guztiak oso gutxitan hartzen dira kontuan baina eragina izaten ari dira ikasleek eta beren gurasoek duten iritzian.

Hitz batean, gizartea era masiboan euskalduntzeko eskola nahikoa zela luzaroan pentsatu arren, gaur ez dugu inolaz ere sinesten pertsona eleanitzez osatutako jendarte euskalduna bermatuko duen tresna denik eta, helburu hori lortzeko, beste gizarte-eragile batzuen lana gehitu beharko zaio eskolak egiten duenari.

Gaurko sisteman antzemandako bigarren akatsari, *gizarte-kohesioari*, dagokionez, ereduaren sistemak nahi ez den ondorio bat eragin du, ikasle etorkinak eta jatorri sozial, ekonomiko eta kultural ahulekoak A ereduko geletan pilatzea, alegia.

Sare publikoan, pilaketa hau, oro har, A ereduko geletan gertatzen da eta, A ereduaren eskaintza ez bada, B eredukoetan.

Sare pribatuan, A ereduaren publikoan baino askoz ugariagoa da: bikoitza DBHn eta hirukoitza Haur Hezkuntzan; ondorioz, proportzioz gorantz doa. Ikasleen osaketan polarizazio nabarmena gertatzen da: mutur batean, eredu horretako publikoaren antzeko ikastetxeak ditugu eta bestean, aurrekoa baino talde ugariago bat, goragoko gizarte mailako ikasleek osatua.

Beste plano batean, gaurko ereduaren sistemak, familien aukeraketan oinarritzen dena, badu ikasleek hizkuntza bati edo besteari lotutako identitate-

faktoreen edo faktore ideologikoen arabera taldekatzeko joera eta horrela bereizketak sortzen dira kokapen geografiko bereko eta ikastetxe bereko ereduaren artean.

Hitz batean, ikasleak ereduaren arabera sailkatzeak gizarte-, ekonomi eta kultur sailkapena eragiten du, eta hori da, hain zuzen ere, ekitatearen aldeko politikek saihestu nahi dutena. Euskal ikasle guztiei aukera-berdintasuna bermatu nahi zaie.

Laburbilduz, orain arte azaldu diren arrazoiengatik, Kontseilu honek bere egiten du hizkuntza ereduaren gaurko markoa gainditzeko goranzko joera eta hezkuntzaren munduarekin eta gizarte osoarekin partekatu nahi du jarraian azaltzen den proposamena.

Proposamenaren oinarria

Euskadiko Eskola Kontseiluak gaur egun gure legeek ezartzen dutena ardatz hartuta egiten du bere proposamena. Dauden bi legeak hauek dira: *Euskararen Erabilpena Normaltzeko Legea*, 1982koa, eta 1993ko *Euskal Eskola Publikoaren Legea*. Bi legeak helburu generikoak planteatzen dituzte, derrigorrezko ikasketak bukatzean ikasle guztiek eskuratu beharreko hizkuntza gaitasunei begira. Kasu batean, "bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko gaitasuna" planteatzen da eta bigarrenean, "bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal ditzaten."

Azaldutako *ebaluazioen emaitzek* baieztatzen dutenez, legeen helburu generikoak ez dira betetzen eta ikasle askok ez dute euskara ulertu eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna.

Akatsak identifikatu ondoren, proposamen honen helburua hau da: eredu berria garatzen duen arau-markoak ikasle guztien hizkuntza gaitasunen hobekuntza bermatzea eta, batez ere, proposatzen diren helburuetatik eskola-egoera urrunenetan dauden ikasleena. Proposamenaren ardatza euskara da, euskal gizartearen nahi bateratuei begira hizkuntzarik ahulena den aldetik, eta zentratu egiten da derrigorrezko eta aurreko eskolatzearen etapetan, Legebiltzarraren akordioaren esparruan.

Ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluaren proposamenak legeen helburu hauek operatibo bihurtu nahi ditu ondoren azaltzen den eran.

Proposamena

Egindako diagnostikotik eta aurreko oinarrietatik abiatuz, Kontseilu honek zera planteatzen du: *Administrazioak zehaztu egin behar ditu* DBHko 4.eko ikasleek *euskaraz izan beharreko gaitasunak ebaluatzeko erreferentziako mailak*: gutxienezkoa eta gomendatutakoa. Halaber, Lehen Hezkuntzaren bukaerarako gutxienezko mailen erreferentziak zehaztu behar dira, baita Lehen Hezkuntzako eta DBHko ziklo bakoitzaren amaierakoak ere. Era berean, egiaztatzeko sistema bat ezarri beharko litzateke ikasleentzat, hizkuntzan nola aurreratzen duten ezagutzeko erreferentzia gisa baliagarri gerta dakien.

Kontseilu honek zera azpimarratu nahi du: *euskara irakasteko hizkuntza gisa erabiltzen ez duen, edo gutxi erabiltzen duen, eredu batek ez du proposatutako helburuak lortzeko balio*. Ondorioz, Administrazioak zehaztuko du irakasgaiak euskaraz emango diren eskola-ordutegiaren gutxienezko ehunekoa eta hau bakar eta malgua izango den eredu berriaren oinarritzko elementu bat da.

- *Bakarra*, bi zentzutan:
 - a) *Ikastetxe bakoitzak eredu bakarra eskainiko du*, ikastetxearen eredua. Maila bereko ikasleak geletan taldekatzeko orduan, gela guztietan bilduko da ikastetxeak duen aniztasun guztia, behar diren irizpide pedagogikoen arabera. Barne kohesioa eman nahi zaio ikastetxeari, barne sailkapenik egin gabe. Ikastetxeak eskaintzen duen euskara maila berbera izango da ikasle guztientzat, curriculumeko gainontzeko arloetan gertatzen den legez.
 - b) Eredu berria, neurri handi batean, bateratzailea da, *ikastetxe guztiak berdintzen baititu exijitu beharreko minimoetan* helburuei, ebaluazio-irizpideei eta hizkuntza bakoitza irakasteko denborei begira. Minimo hauek sistema osoa bateratzeko, kohesioa emateko dira baliagarri.
- *Malgua*, hiru alderditan:
 - a) Irakasteko hizkuntza bakoitzari eskainitako *denboren banaketan*, zonaldearen eta ikastetxearen *egoera soziolinguistikoaren arabera* eta, betiere, Administrazioak ezartzen dituen mugak errespetatuz. Gaztelania nagusi den zonaldeetan euskararen normalkuntza izango da ikastetxearen proposamena hezurramituko duen funtsezko ardatza. Halaber, euskara nagusi den zonaldeetan aztertuko da gaztelaniako irakaskuntza areagotzearen beharra, hizkuntza horretan ulermen edo adierazpen hutsuneak nabaritzen diren tokietan.

Bi hizkuntza ofizialetan eskuratu behar diren gaitasunak lortzeko kalterik gabe, Kontseiluak interes handiz hartzen du eleaniztasunaren programen hedapena, Administrazioak ezarri beharko dituen laguntza eta formakuntzarekin.

- b) *Egokitzeko erritmoetan*, zehazten diren helburuak lortzeko. Honen arabera, ikastetxeen abiapuntua oso anitz eta ezberdina da eta, ondorioz, legeak ezartzen dituen helburuei uko egin gabe, plangintza fase desberdinak ezarri beharko lirateke ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien eta bere hizkuntz proiektuaren arabera, ikastetxe guztiek nahi den helburua lortu ahal izateko moduan.
- c) *Ikastetxeetan dagoen barne aniztasunaren tratamenduan*. Bi egoera mota daude: une honetan bi edo hiru ereduak ematen dituzten ikastetxeak eta, bestetik, ikasleen aniztasuna, gizarte-, ekonomi eta kultur jatorriak eragindakoa. Aniztasunaren gai hau, euskalduntzearen prozesuan, nabarmen agertzen da ikasle etorkinen artean.

Halaber, eredu berriak hezkuntza-sistemaren bi alderdi dinamizatzailerik, ikastetxeetan eta Administrazioan ondorioak izango dituztenak, garatzea dakar: ikastetxeen autonomia eta ebaluazioa.

Ezartzeko aldia

Araudi berria ezarri aurretik, *derrigorrezko hizkuntz ebaluazio unibertsala* burutuko da Lehen Hezkuntzako (6.a) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (4.a) azken bi mailetan eta honek emango du behar diren aldaketak dimentsionatu eta sekuentziatzeko aukera. Emaizta hauetan oinarrituz, arautuko da euskaraz irakatsiko diren irakasgaiak sartu edo zabaltzeko aukera eta izango dituzten orduak.

Ikastetxeek hasierako ebaluazioaren emaitzak izan beharko dituzte, haien hizkuntz proiektua egin aurretik. Bestalde, Administrazioak berrikuntzarako teknikariak eta ikastetxeetako zuzendaritza pedagogikoak gaitu beharko ditu, proiektua idaztean klustroei orientabide eta materialekin laguntza emateko.

Lehen une hau aprobetxatu beharko litzateke, Administrazioak eta ikastetxeek ados ditzaten hizkuntz proiektuak beharko dituen baliabideak eta aplikatzeko epeak, prestakuntzari, aholkularitza teknikoari eta plantilari lotutakoak.

Azkenik, araudi berriak sistema berria ezartzeko faseak zehaztu beharko ditu. *Era gradualean* ezarri beharko da, etapa bakoitzaren behe mailako kurtso eta zikloetatik abiatuz.

Ondorioak ikastetxeentzat

Hasierako ebaluazioaren mailaren eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonal osoaren ezaugarrien araberakoak izango dira ikastetxe desberdinetan sartuko diren aldaketak. Edonola ere, ikastetxeek, beren *autonomiaz* baliatuz, beren *hizkuntza proiektua* izan beharko dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Hizkuntz proiektu honetan ikastetxe bakoitzak jarraitu behar duen ibilbidea jaso behar du, legeak ezartzen dituen gutxienezko helburuak lortzeko, lehentasuna ematen dien helburuak, behar dituen bitartekoak eta egiaztatzeko irizpideak, baita plana ondo doan ebaluatzeko epeak ere, adieraziz.

Ondorengoak dira ikastetxe bakoitzak kontuan hartu beharko dituen beste elementu batzuk:

- a) Hizkuntzak irakasteko antolaketa berri bat, haien *tratamendu integratua* kontuan hartuko duena, bi ondorioekin, gutxienez:
 - Hizkuntz arloko curriculum-edukien egokitzapena eta irakasgaietan (euskara, gaztelania, atzerriko hizkuntza) banatzea. Horrela ez dira gauzak errepikatuko eta hizkuntza bati buruz ikasitakoa beste hizkuntzetara zabalduko da.
 - Ikastetxeko irakasle guztiek beren gain hartzea hizkuntz arloa hobetzearen ardura, arlo hori baita gainontzekoetan egiten den lanaren oinarria. Hizkuntz proiektuak behaketa-irizpideak eta ikastetxeko langile guztiek hizkuntzen erabilpenean jarraitu beharreko ildoak finkatuko ditu, besteak beste, bere helburuen artean.
- b) *Ikuspegi komunikatiboa* ez da hizkuntzak irakasteko gure metodoetan asko sartu. Oraindik kasu askotan ikaskuntza gramatikal hutsetan oinarritzen dira. Ondorioz, ahozkoatasuna bultzatuko duten egoerak lortzen saiatu behar da eta honek *talde txikiak* izatera behartzen du, saio batzuetan behintzat. Eraginkortasunez jokatzeko, lehentasuna eman beharko litzaieke bikoizketei hasierako etapetan, gaur egun ez daudenak.
- c) Antolaketa-arloan, *hizkuntz proiektua koordinatzeko* egitura egokia jarri beharko litzateke abian, zuzendaritza-taldeko kide baten eta Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektuaren koordinatzailearen parte-hartzearekin, besteak beste. Gainera, koordinatzailearen kargua prestakuntzarekin eta eskuduntzekin indartu beharko litzateke.
- d) *Euskarak hizkuntza akademikoa izatetik komunikazio-hizkuntza izatera pasa behar du*. Ikastetxe bakoitzak hizkuntzak nola erabiltzen dituen zorrotz aztertu behar du, ikastetxearen hizkuntz proiektua egiteko ezinbesteko baldintza den aldetik. Hezkuntza-gune ez akademikoek (patioak, jantokiak, pasabideak,...), eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera ludikoek garrantzi handia hartzen dute. Era berean, ikastetxe bakoitzak bere ingurunean nola jardun behar duen

planteatu beharko du, euskara erabiltzeko haien planak tokian tokiko udalarenekin nola koordinatu behar dituen batez ere.

- e) Guztientzat gutxienezko maila batzuk lortzeko asmoz, arreta eta, plantilari begira, *baliabide osagarri* gehiago eskaini behar zaizkie erdi edo behe mailako ikasleak matrikulatzen dituzten ikastetxeei. Izan ere, ikasle horiek aukera gutxiago dute eskola-arrakasta lortzeko, familia- eta gizarte-inguruneak kultura gutxiago eskaintzen die eta.
- f) Hizkuntza proiektuetan familien inplikazioa bultzatu behar da.

Ondorioak Hezkuntza-administrazioarentzat

Planteamendu honek araudiaren, antolaketaren eta baliabideen aldetik eragiten dio Administrazioari.

Antolaketa-alderdian, hizkuntz proiektua gauzatzeko ikastetxeen *autonomia* garatzeak ikastetxeen ezaugarriak kontuan hartuko dituen harreman-mota berri baten arabera jokatzera derrigortuko du Administrazioa. *Kontrolerako gizarte-mekanismoek*, ebaluazioarekin lotura estua dutenek, ezinbestean osatu behar dute egiten ari den proposamena, malgutasun eta autonomian oinarritua.

Lehenik eta behin, Administrazioak orientabideak emango ditu ikastetxearen hizkuntz proiektua egiteko eta, geroago, proiektu hau erreferentziatzat hartuko du, ikastetxe bakoitzak ezarritako helburuak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko. Ikastetxe bakoitzaren autonomia behar bezala errespetatuz, Administrazioari dagokio behar diren neurriak hartzearen ardura, ezarritako gutxienezkoak adostutako epeetan bete daitezen eta hizkuntz proiektuak egiazko gizarte elebidun bat lortzera bideratuak egon daitezen. Zentzu horretan, *ebaluazioak* eta bere ondorioek proposatzen dugun sistemaren funtsezko atala izan behar dute. Ebaluazioak ondorengo ezaugarriak bete beharko ditu:

Barne eta kanpo ebaluazioa: behin eta berriz esan denez, ikastetxeari, Administrazioak ematen duen aholkularitzaren laguntzarekin, dagokio bere diagnostikoa egin eta ikastetxearen hizkuntz proiektua gauzatzearen ardura eta, geroago, behar diren ebaluazioak egin behar ditu, betetzen den ala ez egiaztatzeko. Zentzu honetan, dagoeneko dauden prozedurak, kalitate- eta hobekuntza-prozesuetan oinarrituak, bultzatu behar dira eta, halaber, ikastetxearen ohiko plangintza-sistemak ere hartu behar dira kontuan, urteko planen eta memorien bidez. Horien barruan, hizkuntz normalkuntzak kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu bat izan behar du.

Administrazioak barne-ebaluazio hori beste ebaluazio batekin osatuko du, adituek egingo dutena, aldez aurretik ezarritako periodikotasunez (hirurtekoa,

laurtekoa, bosturtekoa). Honela, egiaztatu ahal izango da ikastetxeak legeak ezarritako helburuetan eta ikastetxearen hizkuntz proiektuaren helburuen arabera aurreratzen duen.

Kuantitatiboa eta kualitatiboa: Proba objektiboek, neurri batean, hizkuntzak zein mailatan ezagutzen diren neurtzeko balio dute baina, horrez gain, beharrezkoak dira azterketa kualitatiboak, ondorengo faktoreak kontuan hartuko dituztenak: hizkuntzaren erabilpenean egiten den aurrerapena, hiztunak pozik egotea, zenbait jardueraren egokitasuna, hizkuntzaren kalitatea, eskola-komunitate osoaren motibazioa hobetzea eta ezagutzak neurtzeko proba huts batean jaso ezin daitezkeen beste funtsezko faktore batzuk.

Kontrol eta prestakuntza-funtzioa: ikastetxeek azalpenak eman behar dituzte hizkuntzaren arloan egiten ari direnarengatik. Emaidza horiekin zer egin beharko den ikusi beharko da. Ez dira konparazio edo sailkapen publikoak egin beharko, Administrazioak hitzartutakoa betetzen ez dutenei erantzukizunak eskatu beharko dizkien arren. Baina prestakuntza-funtzioarekin osatu behar da kontrol-funtzio hori. Ebaluazioaren emaitzak ezagutu ostean, hauek zuzentzeko faktoreak eta geroagoko planifikazio eta gauzatzeetan kontuan hartu beharreko hobekuntzak sartzeko izan behar dituzte baliagarri. Administrazioak ikastetxeen arteko ezberdintasunak eta ebaluazioen emaitzak kontuan hartu beharko ditu baliabideak esleitzeko orduan.

Euskaraz eta, hedaduraz, atzerriko hizkuntzez irakasteko gai diren ***irakasleak hornitu eta trebatzea*** lehen mailako erronka da. Lehenik eta behin, hezkuntza-sistematik eskaeraren arabera jokatzeko jakin duela erakutsi du, bi bide erabiliz: irakasle ez euskaldunen gaikuntza, alde batetik, eta bestetik, kontratazio berrien bidez. Behar bezala eskertu behar diegu euskal irakasle askori euskalduntzeko egin duten ahalegina. Hemen proposatzen den eredia inor ezgaitu gabe gauza daiteke eta, aldi berean, euskalduntze-prozesuan orain arte egin den ahaleginari eutsiz, oraindik ere hazkunderako tartea bai baitago, irakaskuntza pribatuan bereziki. Era berean, irakasle erabat elebidunak lortzeko asmoz, hezkuntza sisteman egingo diren kontratazio berriek HE2 exijitu beharko dute baldintza gisa. Aurreikuspenen arabera, erretiroen erritmoa era gradual eta irmoan haziko da datozen 15 urteetan eta honek erronka horren zailtasuna areagotuko du.

Zonalde erdaldunetan kokatutako ikastetxeetan euskararen ahozko erabilpena indartzeko bikoizketak jarri beharko dira martxan, hasierako etapetan oro har eta, bereziki, ekonomi eta kultur jatorriak eragindako gabeziak dituzten ikasleak, ikasle etorkinak barne, elkartzen diren guneetan.

Prestakuntzaren eta aholkularitzaren esparruan, puntu hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Gure esparruko unibertsitateek, lehen urratsetan dagoen unibertsitate-berrantolaketan, gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gai izatea hartu behar dute kontuan irakaskuntzara zuzendutako titulazioen ikasketa-planetan. Honen harira, gogora ekarri behar da Euskararen Erabilpena Normaltzeko Legeak zioena, Eusko Legebiltzarrak 1982an ohar batez onartua: *“Irakasleen gaikuntzarako unibertsitate-eskolek irakasleak bere berariazkotasunak eskatzen duenaren arabera euskaraz eta gaztelaniaz irakasteko erabat gai izan daitezela lortzeko egokituko dituzte bere ikasketa-egitarauak.”*
- b) Orain arteko irakasleen euskalduntze-prozesua konplexua izan da. Irakasle horietako askok lanbidetik at euskara ez dute erabiltzen eta prestakuntza-testuinguru formalizatuetan jaso dute; horrek guztiorrek muga nabarmenak ekarri ditu adierazkortasun mailan eta, oro har, hizkuntz gaitasunean. Behar horiei begira, bai plantilarako formakuntza-ikastaroak bai hizkuntzaren erabilpen egokirako jarduerak bultzatu beharko dira.
- c) Berritzeguneez funtzio inportantea dute hizkuntzen esparruko prestakuntza-jarduerak eman eta antolatzeke orduan, baita proiektuei aholkularitza emateko eta ikastetxeen esperientziarik nabarmenenak hedatzeko ere. Teknikarien taldeak eratu behar dira eta hauek, Ikuskaritzarekin eta Euskara Zerbitzuarekin koordinazioan, hizkuntz proiektuak egin, abian jarri eta ebaluatzeko ereduak eta aholkularitza emango dituzte.
- d) Irakaskuntzan diharduten langile ororen izaera hezitzailea aitortzen dugun heinean, euren euskalduntze-prozesuan aurreratzeko erraztasunak eman behar dira.

Azkenik, Administrazioari dagokio plan eta proiektu horien finantziarioa bermatzea. Gogorarazi behar da azken urteetan nabarmen jaitsi dela hezkuntza-sistema euskalduntzeko aurrekontua eta beronen zati inportante bat ez dela gauzatzen. Bestetik, atzerriko hizkuntzaren hedapenak dakartzan kostuak ere kontuan hartu beharko dira.

Halaber, ebaluazioari, prestakuntzari eta eskolaz kanpoko jarduerari buruzko neurriek Sailaren aurrekontuetan agertu beharko dute.

Beste inplikazio sozial eta politiko batzuk

Hezkuntza-sistema da euskalduntzearen lana aurrera eramateko oinarritzko zutabeetako bat. Baina, diagnostikoan esan den legez, prozesu honek faktore asko hartzen ditu eta gizarte osoaren ahalegin kolektiboa izango da euskalduntze hori lortzeko berme bakarra. Gauzak horrela, gizarte-eragile eta eragile politiko guztiei dei egiten diegu.

Proposamen berri batek euskararen normalizazioa sustatzea eta, aldi berean, gizarte- eta kultur kohesioa hobetzeko baliagarri izatea nahi bada, abian

jarri behar da *elkarrizketan aritzeko gaitasuna*. Zentzu honetan, Kontseiluak adostasunak bilatzen ahalegintzeko eta hizkuntzak gatazkarako tresna gisa ez erabiltzeko eskatzen die ordezkari politikoei; izan ere, komunikazio eta kultur adierazpenerako tresnak dira eta zaindu eta sustatu behar ditugu.

Gizarte eta ekonomiaren esparruan merkatuaren legeek eragina dute hizkuntzen bilakaeran, haien hazkundean edo desagerpenean. Horiek horrela, *ekimen pribatuak*, eta enpresaren eta lan-munduak bi aspektu orekatzen jakin beharko dute: euren ekonomi helburu zilegiak eta gure hizkuntza minorizatuaren gizarte-ospea hobetzeko neurri zehatzak. Argudio honek indar berezia hartzen du *komunikabideen* kasuan, sektore hau hezkuntza bezain funtsezkoa baita gizarte elebidun bat lortzeko.

Orain arte egin diren azterketa eta ikerketak oso lagungarri izan zaizkigu hain konplexua den fenomeno hau ulertzeko. Hala ere, askoz *ikerketa* gehiago behar dugu. *Unibertsitateek* eta beste eragile batzuek ikerketa-lanak egin behar dituzte, eragina izan nahi dugun errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko.

Era berean, gure hezkuntza-sisteman adin horietako hainbat eta hainbat haurrek *euskarazko gizarte-erreferentzien urritasuna* azpimarratu nahi dugu. Haur eta nerabeek beren esperientziak eta emozioak euskaraz adierazi ahal izateko harremanetarako testuinguruak behar dituzte eta, hau lortzeko, ikastetxeak inguruneari irekitzea lagungarria izan daiteke. Horrela haien esperientzia desberdinetatik abiatuz, kultur eragileek eta familiek ikastetxearen hezkuntza-ekarpena aberasteko aukera izango dute eta, aldi berean, ikastetxeak ingurunean duen eragina areagotuko da.

Instituzioen arloan, udalek indartu behar dute euskararen normalkuntzaren aldeko konpromisoa, ikastetxeekin batera proiektuak bultzatuz, haur eta gazteei zuzendutako kultur, kirol- eta aisialdi-jarduerak euskaraz izatea zainduz, familiak euskalduntzeko erraztasunak emanez, etab... Beste instituzio batzuek, Foru Aldundiek esate baterako, gehiago parte hartzea ere komenigarria litzateke, baita erakundeen arteko koordinazio hobea izatea ere.

ooooo ooooo ooooo

Eskerrak ematen dizkiogu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari orain ezagutzera ematen den proposamenean erakutsi duen interesarengatik, baita gure aurrean hitz egitea adeitasunez onartu zuten gonbidatu guztiei eta parte hartu duten Kontseiluko kideei ere. Horiei guztiei, hezkuntza-komunitateari eta, oro har, euskal gizarteari zuzentzen diegu idazki hau.

Bilbon, 2007ko otsailaren 1a